



IURRETA

Lanbide Heziketa

IRAKASLEEN

HARRERA PLANA

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA	4
2. IKASTETXEKO ERAIKINAK	5
1 ERAIKIN NAGUSIA: BEHEKO SOLAIRUA	6
IDAZKARITZA	6
ATEZAINITZA	7
ZUZENDARITZA	8
LANERAKO ORIENTAZIO ETA IKASKUNTZA BITARTEKARITZA ZERBITZUAK	9
SAREA	10
BILTEGIA	10
BILERA GELA	10
IKASKUNTZA EZ-ARAUTUA ETA LP/DUAL BULEGOA	11
IRAKASLE GELA	11
ARETO NAGUSIA	12
BESTELAKO TXOKOAK	12
1 ERAIKIN NAGUSIA: GOIKO SOLAIRUA	13
ADMINISTRAZIO ETA LPO-INGELERA MINTEGIAK	13
EDUKI DIGITALAK SORTZEKO GELA	13
CYBER RANGE GELA	14
ETHAZI GELAK	14
BERRIKUNTZA TXOKOA	15
TREBAKUNTZA DIGITALERAKO GELA	16
MURGILTZE GELA	16
2 IBILGAILUEN MANTENTZE LANAK	17
3 GIZA ZERBITZUAK - ELEKTRONIKA ETA ELEKTRIZITATEA	17
4 FABRIKAZIO MEKANIKOA	18
ATECA GELA "Aulas de TECnología Aplicada"	18
5 FABRIKAZIOA ETA SOLDADURA	19
3. HARRERA PLAN DIGITALA	21
BALIABIDE DIGITALAK ERABILTZEN HASTEKO URRATSAK	21
BALIABIDE INFORMATIKOAK IKASTETXEAN	22
DOMEINUAK	22
WEBAK	23
BARNE WEBGUNEAK	23


HEZKUNTZAKO WEB GUNEAK	24
ESKOLAKO WEB GUNEAK	26
OROKORRA.....	27
ESKOLAKO KUDEAKETA	28
EGITURA BERRIKO SITE-A.....	29
EREDUAK	30
BESTE WEB BATZUK INTERNETEN	30
KANPOTIK ATZIPENAK VPNAK	30
WI-FI SAREAK	31

1. AURKEZPENA

CIFP Iurreta LHII 70. hamarkada bukaeran hasi zuen prestakuntza-jarduera. Ikasturte honetan hurrengo familietako heziketa-zikloak eskaintzen ditu:

- Fabrikazio mekanikoa familian:
 - Mekanizazioa D ereduan (Erdi maila)
 - Fabrikazio mekanikoko produkzioa programatzea D ereduan (Goi maila)
- Garraio eta ibilgailuen mantentze lanak familian:
 - Ibilgailu automobilen elektromekanika D ereduan (Erdi maila)
 - Automozioa D ereduan (Goi maila)
- Elektrizitatea eta elektronika familian:
 - Informatika eta Komunikazioak D ereduan (Oinarrizko maila)
 - Telekomunikazioen instalazioak D ereduan (Erdi maila)
- Administrazioa eta kudeaketa familian:
 - Administrazio kudeaketa A eta D ereduan (Erdi maila)
 - Administrazio eta finantzak D ereduan (Goi maila)
- Gizarte eta kultura zerbitzuak familian:
 - Menpekotasun-Egoeran dauden pertsonentzako arreta D ereduan (Erdi maila)

2. IKASTETXEKO ERAIKINAK



1 ERAIKIN NAGUSIA: BEHEKO SOLAIRUA

Eraikin nagusiak bi sarrera ditu. Sarrera printzipala aparkaleku aurrekoa da eta autoz datozen langile, ikasle eta bisiten artean erabiliena.



Bigarren sarrera oinez datozenak edo bertan eraikin batetik bestera joateko erabiltzen da.



Beheko solairuan honako zerbitzuak ematen dira:

IDAZKARITZA

Ikastetxean bi idazkari daude. Funtzioen artean:


- Irakasle berrien datuak bete.
- Irakasleen bajak kudeatu.
- Taldeko tutoreen bitartez ikasleei matrikula hitzorduak helarazi.
- Taldeko tutoreen bitartez ikasleei beken informazioa helarazi.



Harremanetarako posta elektroniko helbidea:

idazkaritza@iurretalhi.eus


ATEZAINNTZA



Ikasturtean zehar hiru atezain daude, bi goizez eta bat arratsaldez.

Irakasleei ematen zaien zerbitzuen artean, fotokopiak egin, dokumentuak eskaneatu, folioa, sobreak,...

Fotokopiak egiteko irakasle bakoitzari 4 digitudun kode bat ematen zaio ikasturte hasieran. Kode hori fotokopiagailuan pegatutako orri batean dago norberaren izenarekin batera.



Fotokopiagailuak txuri beltzean fotokopiatzen du soilik. Paperezko dokumentuez gain, USB batetik ere dokumentuak fotokopiatu daitezke.

Kontuz! Mintegiko ordenagailuetatik ez dago aukera fotokopia honetara aginduak bidaltzeko.

Kasualitatez fotokopiagailua itzalita aurkituz gero eskumako aldean duen ON/OFF botoiaren goiko aldean sakatzuz piztu egingo da.



Fotokopiagailuak menu honetan kodea sartzerakoan erabiltzaile bakoitza identifikatuko du.

Posta elektronikoa: atezaintza@iurretalhi.eus

ZUZENDARITZA



Zuzendaritzako bulego hau idazkaritzako bulegoarekin lotuta dago. Bertan administraria, idazkaria eta ikasketa burua egoten dira.

Beraiekin kontaktuan jarri nahiz izanez gero, posta bidez egitea dago posta elektroniko helbide hauetan:

administraria@iurretalhi.eus

idazkaria@iurretalhi.eus

ikasketaburua@iurretalhi.eus

Aurten gure ikasleentzako orientatzaile pedagogikoa izango dugu eta gune honetan egongo da. Kontakturako helbide elektronikoa orientatzailea@iurretalhi.eus



Zuzendari exekutiboaren bulegoa aurrean aurkitzen da. Posta elektroniko helbidea: zuzendaria@iurretalhi.eus

Zuzendari orde eta kalitate arduradunaren bulegoa.

Zuzendaritza taldearen helbide elektronikoa: zuzendaritza@iurretalhi.eus



LANERAKO ORIENTAZIO ETA IKASKUNTZA BITARTEKARITZA ZERBITZUAK

Gardabera enpresako langile batek eskaintzen ditu zerbitzu hauek. Bere eginkizunak honakoak dira.

LANERAKO ORIENTAZIO ZERBITZUA:

- Orientazio akademiko eta profesionaleko eta orientazioko programak diseinatzea.
- Familiak eta irakasleek egindako orientazio-eskaerei erantzutea.
- Inguruko zerbitzu eta zentroekin lankidetzaharremanak izatea.



Zerbitzuaren hartzaileak: Ikasleak, familiak eta irakasleak.

Aldez aurretik hitzordua hartzea beharrezkoa da.

DURANGALDEKO IKASKUNTZA BITARTEKARITZA ZERBITZUA:

Prestakuntza-eskaintza orori buruzko informazioa eta aholkularitza eskaintzen den doako zerbitzua da. Adibidez, titulu ofizial bat lortzea (DBH, Lanbide Heziketa, Unibertsitate Ikasketak, Masterrak eta Graduondokoak), lanerako prestakuntza edo etengabeko prestakuntza eta edozein ikastaro, hitzaldi, tailer, mintegi...

Zerbitzua edozein herritarrentzat zuzendua dago: Jardunean dauden profesionalak, langabezian daudenak, ikasleak, pentsiodunak, etab.

Zerbitzua Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailetik bultzatzen da.

Aldez aurretik hitzordua hartzea beharrezkoa da.

Zerbitzuaren inguruko informazio gehiago:

<https://www.hiru.eus/es/hiru-ikasgida>

ibarrena@iurretalhi.eus

SAREA



Sare administrariaren gunea, arazo informatikoren bat izatekotan bertaratu zaitezke.

BILTEGIA



Irakasleek ez dute gela honetara sartzerik baina departamentuan bulego materiala (boligrafoak, errotulkiak, típex...) faltan bota ezkeror alorburuak atezaintza edo zuzendaritzako bati eskatu eta beharrezko materiala lortuko du.

BILERA GELA



Irakasle gela eta biltegiaren artean aurkitzen da eta bilerak (familiekin, enpresekin...) eta bideokonferentziak egiteko prestatuta dago. **Zuzendaritzan erreserba egitea beharrezkoa da erabili ahal izateko.**


IKASKUNTZA EZ-ARAUTUA ETA LP/DUAL BULEGOA

Gune hau ez-arautuko formakuntzaren arduradunaren (lanbide...) eta lantoki prestakuntza / dualaren arduradunen bulegoa da.

Harremanetarako posta helbideak:

lpredual@iurretalhi.eus

ezarautua@iurretalhi.eus



IRAKASLE GELA



Irakasle gela gune desberdinetan banatuta dago. Bertan bilerak eta zaintzak egiten dira baina kafea hartzera eta bazkaltzen geratzeko aukera ere dago.



Mahai luze bilerak egiteko erabiltzen da. Zaintza orduan bertan aurkituko duzu zaintza koadernoan.



Lanean jarraitzeko ekipoak erabili daitezke.

Atsedenalдитan kafea hartzera joateko espazio aproposa.



Bertan bazkaltzeko aukera ere badago. Janaria gordetzeko hozkailua eta berotzeko bi mikrouhin-labe daude.



ARETO NAGUSIA

Areto Nagusia klaustroak edota bilerak egiteko eta ekintza osagarri desberdinak aurrera eramateko, hala nola, ikastaroak, erronka aurkezpenak, hitzaldiak, ate irekiak, zinema ikusezina eta euskara eguneko ekitaldietan erabiltzen da.

Langile eta kanpoko erakunde desberdinek erabili dezakete baina horretarako **zuzendaritzan erreserba egitea beharrezko baldintza da.**

Proiektorearen erabilerarako gidaren [esteka](#)



BESTELAKO TXOKOAK




Goiza hasteko ezinbestekoa askorentzat KAFETXOKOra hurbiltzea.


Gatza ala azukrea behar izan ezker, sarrera ondoan dauden makinetan eskuratu dezakezu.



1 ERAIKIN NAGUSIA: GOIKO SOLAIRUA



Ikasle / Irakasle
batek eskilarak
igotzeko zailtasunak izatekotan,
atezaintzan igogailuz igotzeko
giltza eskatu behar da.



Goiko solairuan Administrazio eta LPO-Ingles mintegiak, Administrazio zikloetako gelak, Ethazi gelak, murgiltze gela, edukiak sortzeko espazioa, CyberRange daude.

ADMINISTRAZIO ETA LPO-INGELERA MINTEGIAK



Eskilarak igo eta ezkerretara bi mintegiak aurkitzen dira, bata bestearen alboan.

Pasillo berean, eskuma aldean, administrazio zikloko ikasleek erabiltzen dituzten gelak daude NA109, NA110 eta NA111.


Harremanetarako helbide elektronikoak:

administraritz@iurretalhi.eus

lpo@iurretalhi.eus

EDUKI DIGITALAK SORTZEKO GELA

NA114 ikasgela eduki digiak sortzeko gela da. Bertan, irakasle eta ikasleek (irakasle baten ikuskaritza pean beti ere) erronka edota proiektuak aurrera eramateko bideo grabazioak egitera sar daitezke.



CYBER RANGE GELA

NA112 eta NA113 gelak batu eta CyberRange gunea prest dago. Gela honen helburua ikasleek cybersegurtasun arloan formazioa jasotzea da. Ordenagailuez gain, arbela interaktibo, pantaila, mikrofono eta kameraz atondua dago.

Erabili nahi izatekotan, **erreserbatu beharra dago zuzendaritzan.**




ETHAZI GELAK

Eskilarak igo eta eskumara dagoen pasilloan zehar eraikuntza nagusiko bi ETHAZI gelak aurkitzen dira, NA105 eta NA106. Normalean gelak manpara baten bidez banatuta daude, baina formakuntza, hitzaldi eta espazio handiagoa behar den ekitaldietan manpara zabaltzen da gela bakarra bihurtuz.

Espazio falta dela eta, goizetan administrazio zikloetako ikasleek gehienbat erabiltzen dituzte gela arrunt bezala. Hala ere, **gainontzeko zikloko irakasleek gela hauek erreserbatu ditzakete libre dauden orduetan.**



NA105 GELA



Goizetan administrazio zikloko klaseak emateko erabiltzen da. Arratsaldetan ikastaroak ematen ohi dira.

Lanerako ordenagailuak behar izanez gero, armairu batean portatilak daude. Armairua zabaltzeko giltza behar da.



Portatiletara Wi-Fi bidez sartu daiteke, baina sarea erabiltzea ere posible da.

NA106 GELA

Gela honetan arbel interaktiboa jarrita dago.



NA105 eta NA106 geletan eramangarrietatik edo norberak ekarritako eramangarrietatik Internetera konektatzeko [esteka](#) honetan informazio gehiago dago.

Arbel digitala erabiltzeko gidaren [esteka](#).

BERRIKUNTZA TXOKOA

NA107 gelan kokatua, Ikastetxeak ikasturte desberdinetan zehar parte hartu dituen proiektuen prototipoak ikusgai daude, hala nola, kolobot, iurretoys, precious plastic.



TREBAKUNTZA DIGITALERAKO GELA

NA103 gela, arratsaldetan trebakuntza digitalerako ikastaroak eskaintzeko sortutako gela da. Goizez, Administrazio zikloko ikasleek erabiltzen dute.




MURGILTZE GELA

NA104 gela edo gela urdina ere deitua, murgiltze gela ikasgelako irakaskuntza-kudeaketa indartzeko espazio berritzailea da.

Errealitate birtualeko eta errealitate areagotuko jardueren bidez, irakasleei zein ikasleei irakasteko eta ikasteko modu sortzaile eta eraldatzailea ahalbidetzen du, ikaskuntza dinamikoagoa, aktiboagoa eta parte-hartzaileagoa bihurtuz.

Murgiltze gela erabiltzeko [eskuliburua](#).

Gela hau erabiltzeko erreserba egin behar da zuzendaritzan.



2 IBILGAILUEN MANTENTZE LANAK

Ibilgailuen mantentze lanak familiako zikloak eraikin honetan daude. Beheko solairuan tailerra dago eta goiko solairuan mintegia eta klase arruntak emateko gelak aurkitzen dira.

Harremanetarako helbide elektronikoa: automozioa@iurretalhi.eus



3 GIZA ZERBITZUAK - ELEKTRONIKA ETA ELEKTRIZITATEA

GIZA ZERBITZUAK

Ziklo honek elektronika familiako zikloekin eraikina konpartitzen du. Lehenengo solairuan aurkitzen da. Pasilloan ezkerretara mintegia aurkitzen da, eskuman ikasgelak daude eta aurrez-aurre tailerra.

Harremanetarako helbide elektronikoa:
gizazerbitzuak@iurretalhi.eus



ELEKTRONIKA ETA ELEKTRIZITATEA



Familia honetako zikloak bigarren solairuan aurkitzen dira. Espazio zabala da, ez baitago horma bidez banatuta.

Ate gorriaren atzealdean mintegia aurkitzen da.

Harremanetarako helbide elektronikoa:
elektronika@iurretalhi.eus




4 FABRIKAZIO MEKANIKOA

Fabrikazio familiako bi zikloak eraikuntza honetan ematen dira.

Eraikuntza honek sarrera desberdinak ditu. Lehenengo solairuan tailerra eta ETHAZI gelak daude, Bigarren solairuan mintegia, ikasgela arruntak eta ATECA gela daude.

Harremanetarako helbide elektronikoa. fmekanikoa@iurretalhi.eus



ATECA GELA “Aulas de TECnología Aplicada”

Gela hau, mintegiaren alboan aurkitzen da.

Lan-merkatuaren beharretara egokitutako ikaskuntza-ingurune berritzailea da, lan-espazio bereziak eta dedikatuak ditu, eta IKTen digitalizaziora eta erabilerara hurbiltzeko gaitasuna du.



5 FABRIKAZIOA ETA SOLDADURA

Administrazio zikloak erabiltzen zuen eraikuntza, orain Orobiogoitia institutuarekin partekatuta dago.

Gure espazioan beheko solairuko ezker aldean aurkitzen da.

Sarreran ikasleek erabiltzeko jateko gunea aurkitzen da. Janaria berotzeko mikrouhin makina erabili dezakete.



Pasilloan ezkerretara fabrikazio mekaniko eta automozio familietako ikasleek erabiltzen dituzten ikasgela arruntak daude.

EKINTZAILETASUN GELA

Momentuz gela hau Ethazi taldeko bilerak egiteko erabiltzen da eta EIP II moduluan egiten diren enpresa proiektuak prestatzeko erabili daiteke. Urratsbat arduradunak ere aukera du ekintzaileekin elkarrizketak egiteko eta ekintzaileen proiektua garatzeko.

Gela hau erabiltzeko erreserba egin behar da zuzendaritzan.



EUSKELEC BULEKO TEKNIKOA

Ikastetxeko proiektu estrategikoa den Euskelec lehiaketarako materiala gordetzeko bulegoa.



Pasiloaren amaieran ikasleek erabiltzen duten karrozeria tailerra aurkitzen da.



3. HARRERA PLAN DIGITALA



BALIABIDE DIGITALAK ERABILTZEN HASTEKO URRATSAK

ERABILTZAILE ETA PASAHITZA

Ikastetxean berria den irakasle bakoitzak ordenagailu eta eramangarrietan aritzeko erabiltzaile eta pasahitza jasoko du. Horretarako, idazkaritzan datuak bete behar dira.

Erabiltzaile eta pasahitza hainbat eremutan aritzeko baliagarriak dira. Kontuan izan, pasahitza ezin dela aldatu.

- Sarean dauden mintegietako eta ikasgeletako ordenagailu eta eramangarrietan sartzeko.
- Ikastetxeko posta ofizialean (zimbra) sartzeko.
- Egitura berriaren kudeaketarako SITEa erabiltzeko.
- Ikastetxeko hodeian
- LMS plataforman lan egiteko (Moodle edo Classroom)



GILTZA



Mintegi eta ikasgela desberdinetara sartzeko ikastetxeko giltza jasoko du zuzendariordearengandik. Giltza hori hilean behin eguneratu behar da. Eguneraketa horiek egitea posible da ikastetxeko ate sarrera batzuetan.

BALIABIDE INFORMATIKOAK IKASTETXEAN

DOMEINUAK

Domeinua segurtasun gune bat da, konfiantza batean elkar erlazionatutako ordenagailuen multzoa. Zenbait zerbitzu ematen ditu, hala nola, autentifikazio zentralizatua eta metatze karpeta zentralizatuak.

Sare administrariaren eskutik jasotako erabiltzaile eta pasahitzarekin ikastetxeko bi domeinura sartu daiteke.

IRAKAS DOMEINUA

Mintegietan eta zuzendaritzan dauden ordenagailuak domeinu honetan daude.



IRAKAS domeinuko kontrolatzailea **'txonpolo'** da.

Gure erabiltzaile izenarekin eta pasahitzarekin autentifikatzean, bi sareko karpeta muntatuko dira:

M: \\txonpolo\GUREMINTEGIA

X: \\txonpolo\eskola

Karpeta horien antolaketa mintegien esku eta zuzendaritzaren esku dago.



IKAIRA DOMEINUA

IKAIRA domeinua: Ikasgeletako ordenagailuak domeinu honetan daude, baita irakaslearen ordenagailua ere.

IKAIRA domeinuko kontrolatzailea **'gorbeia'** da.

Gure erabiltzaile izenarekin eta pasahitzarekin autentifikatzean, hiru sareko karpeta muntatuko dira:

M: \\gorbeia\GURETALDEA

U: \\gorbeia\ERABILTZAILEA

X: \\gorbeia\eskola

Karpeta horien antolaketa irakasle eta ikasleen esku dago, eskola izenekoa izan ezik.

Ohar garrantzitsua! IRAKAS domeinuko ordenagailuetatik IKAIRA domeinuko karpetak ikus daitezke. Alderantziz EZ!

Bideo interesgarria: [Sare unitatera nola konektatu](#)


WEBAK

BARNE WEBGUNEAK

Ikastetxe barruan erabiltzen dugun web zerbitzua da baina irakasleen domeinutik bakarrik sartu daiteke.

Helbidea: <http://www2.iurretalhi.eus>

EZ dago Interneten, eta beraz, etxetik ezin daiteke atzitu.



Bertatik zerbitzu desberdinetara atzipena dago. Hona hemen esteka erabilienak:

HEZKUNTZAKO WEB GUNEAK


Hezkuntzako Aplikazioak

https://www.hezkuntza.net/appcont/control_acceso/index_c.html

estekatik zuzenean sartu daiteke.

Ikasleen hutsegiteak eta kalifikazioak sartzeko erabiltzen da.

Hezkuntzan lehen aldiz diharduen irakasleak erabiltzailea eta pasahitza eskuratzeko zuzendariarengana jo behar duzu.




***Hezigune (Momentuz ez dauka intranetetik sarbiderik!)**

<https://hezigunea.euskadi.eus/eu/inicio> helbidetik sartzea dago.

Webgune honen bidez irakasleak hainbat zeregin egin ditzake.

Adibidez, ikasleen hutsegiteen kontrola, formakuntza ikastaroak eskatu, soldata agiria kontsultatu.

Erabiltzaile eta pasahitza lortzeko bertatik izena eman atalean erregistratu beharra dago.



Akreditazio digitalaren ikastaroan izena emateko adibide bideo [esteka](#).


***EIZU (Momentuz ez dauka intranetetik sarbiderik!)**

Ikastetxetik kanpo <https://eizu.app.jakina.euskadi.eus/irj/portal>

estekatik sartu daiteke, BakQ edo hodeiko ziurtagiri profesionalaren bidez.

Ikastetxetik hezkuntzako aplikazioan sartzeko erabiltzaile bera sartu behar da.

Webgune honen bidez irakasleak bajak kudeatu ditzake, zerbitzu orria ikusi, datu fiskalak ikusi, etab.




Office 365

<https://www.office.com/>

estekan sartu eta irakasle.eus-en kontua izan ezker, irakasle guztiok aukera dugu office 365 erabiltzeko. Office paketea dispositibo propioetan deskargatzea ere posible da.

Horretarako irakasle.eus-eko posta zerbitzuaren bidez o365lizentziak@euskadi.eus-ri zuzendutako eskaera egin behar da.



SET (Skills Evolution Tool)

Aplikaziora sartzeko esteka <https://tknika.setskills.org/evaluazioa>

Ebaluaziorako tresna hau, TKnikak ikasleen gaitasunak neurtzeko eskaintzen duen plataforma da. Erabiltzailea eta pasahitza lortzeko kudeaketa arduradunarengana jo behar da.



ESKOLAKO WEB GUNEAK

Eskolako Web Gune Nagusia

Web korporatiboa, helbidea:

<https://www.iurretalhi.eus>

Interneten dago, eta beraz, etxetik ere atzipena daukagu.

Gehien bat, ikastetxeko informazio orokorra eta berriak aurkituko dituzue.



Moodle plataforma


Ikasleekin materiala, zereginak, jarduerak partekatzeko LMS plataforma. Bertara sartzeko sare administrariak emandako erabiltzaile eta pasahitza sartu behar da.

Ikasturte honetako moodle helbidea

<http://moodle.iurretalhi.eus>

2024/25 ikasturteko modulu baten segurtasun kopia egiteko helbidea.


<http://moodle2024.iurretalhi.eus>



Segurtasun kopia egin eta ikastaro berrira pasatzeko bideo [esteka](#).

*Classroom

Fabrikazio mekanikoko zikloetan classroom erabiltzen da. Bertara sartzeko Google lan eremuko erabiltzaile eta pasahitza behar da.




Posta

Posta zerbitzaria da eskolan erabiltzen dugun komunikazio sistema nagusia. Interneten dago, eta beraz, etxetik ere atzipena daukagu.

<https://posta.iurretalhi.eus>

Postaren erabilerarako bideo interesgarriak:


- [Posta taldeak sortu](#)
- [Bidalketa programatuak](#)
- [Sinaduraren aldaketa](#)
- [Sinadura logoarekin](#)



OROKORRA

Ordutegiak

Ikasturtean zehar taldeen, irakasleen eta gelen ordutegiak ikusi daitezke esteka honetan.



Telefono luzapenak


Atezaintza, idazkaritza, zuzendaritza eta beste mintegietara deitzeko telefono luzapenak aurkitzen dira.

Tokia	Luzapena
Aleazaintza	500
Idazkaritza - Eskualdekoa	501
Idazkaritza - Eskualdekoa	502
Idazkaria Buzia	503
Idazkaria	504
Zuzendaria Ordea	505
Kalifikazio	518
Idazkaria Bileteak / Orientatzailea	520
Administratzailea	507
Idazkaria Ordea	509
Sare Gunea	510
Formakuntza Arduraduna	514
Larrikoko Prestakuntza	508
Zuzendaria	506
L.P.O. Gunea	511
Administratzailea Gunea	512
Informazio Gunea	517
Automatiko Gunea	521

ESKOLAKO KUDEAKETA


Ikasle taldeen zerrendak

Ikasle talde bakoitzaren zerrendak aurkitzen dira atal honetan



Konponketak

Atal honetan informatika alorreko inzidentziak eta konponketa orokorrak (ateak, aulkiak, lehia apurtu...) idatzi ditzakezu.



Helbidea:

<http://konponketak.iurretalhi.eus>

EZ dago interneten, eta beraz, etxetik ezin daiteke atzitu.

Kudeaketa (Inbentarioa)

Atal honetatik ikastetxeko inbentarioaren kudeaketa eramaten da, mintegi eta tailerretakoa. Irakasle batzuk soilik dute sarbidea.

Helbidea:

<http://kudeaketa.iurretalhi.eus>

EZ dago interneten, eta beraz, etxetik ezin daiteke atzitu.



EGITURA BERRIKO SITE-A

Webgune honetan irakasleak hainbat zeregin egin ditzake. Adibide batzuk:

- Ikasturtean egindako formakuntzaren informazioa sartu.
- Ideiak inbutu bidez zuzendaritzari helarazi.
- Ikasle ohien lan poltsa kudeatu.
- Talde pedagogikoen kudeaketa.



Irakasleak erabiltzen duen atal nagusia OPERATIBA da. Bertan norberari dago(z)kion talde pedagogikoen kudeaketa eramaten bait delako.



Atal honetan irakasle bezala betetzeko dauden dokumentu batzuk:

- Irakasleen koadernoak
- Adierazle eta desadostasunak
- Formakuntza informazioa
- Autoauditoretzak
- Aktak
- Praktikaldien jarraipena egin..

GA2 A EREDUA (ADMINISTRATZIOA ERDI)			
ETHAZI KOADERNOAK ETA ERROKEN MAPA			
1	1. MAILA	abakuzioarako beharrezkoak	2. MAILA
2	Espezifikazio/Proa luzeak/Homogeni	Espezifikazio/Proa luzeak/Homogeni	
3	Ikasturtean aktibo dauden erroken txostenak	Ikasturtean aktibo dauden erroken txostenak	
4	Matrikularen Kudeaketa	Matrikularen Kudeaketa	
5	TP memoria	TP memoria	
6	zikloko ikasuntza emaitzak		

ADIERAZLEAK ETA DESADOSTASUNEN KUDEAKETA	
ADIERAZLEAK sartu	
1	1. MAILA
2	Adierazle HELBURUTIK BEHERA badago DESADOSTASUNA IREKI
3	Desadostasunaren HOBETUNTZA EKINTZAREN JARRAIPENA egiteko "Excel-ean zerrendatuta"-ren gainean klikatu

GA2 D EREDUA (ADMINISTRATZIOA ERDI)			
ETHAZI KOADERNOAK ETA ERROKEN MAPA			
1	1. MAILA	abakuzioarako beharrezkoak	2. MAILA
2	Espezifikazio/Proa luzeak/Homogeni	Espezifikazio/Proa luzeak/Homogeni	
3	Ikasturtean aktibo dauden erroken txostenak	Ikasturtean aktibo dauden erroken txostenak	
4	Matrikularen Kudeaketa	Matrikularen Kudeaketa	
5	TP memoria	TP memoria	
6	zikloko ikasuntza emaitzak		

ADIERAZLEAK ETA DESADOSTASUNEN KUDEAKETA	
ADIERAZLEAK sartu	
1	1. MAILA
2	Adierazle HELBURUTIK BEHERA badago DESADOSTASUNA IREKI
3	Desadostasunaren HOBETUNTZA EKINTZAREN JARRAIPENA egiteko "Excel-ean zerrendatuta"-ren gainean klikatu

AUTO-AUDITORETZAK			
***BIDALI DUZUN IKUSTE NAHI BADUZU KLIKATU HEMEN			
IRAKASLE ETA TUTOREAK (Klikatu Ebaluaketa bakartzean)		ALORBUAK	
Azaroa	Otsaila	Ekaina	(Itebal, Zabal eta amaierakoa)
1 maila	1. Ebal	2. Ebal/1. Finala	1. Finala
2 maila			

INKESTA PERTSONALAK
TALDE PEDAGOGIKOAREN INKESTAK
-FORMAKUNTZA orduak sartu
-Lpre/Duala jarraipena
-Lanerako Prestakuntza


MINTEGIAREN KUDEAKETA
ENPRESEKIN KONTAKTUA
MINTEGI BURUEN BATZARRETA KO AKTAK

hezigunea eZU mantis zimbra moodle

<https://sites.google.com/iurreta-institutua.net/egitura-berriaren-kudeaketa/hasiera>

EREDUAK

Barne saretik (www2.iurretalhi.eus) irakasle, tutore edo ikasleek betetzeko dokumentu eguneratuen biltegia dago.




BESTE WEB BATZUK INTERNETEN

Ikastetxeko dokumentuak Interneten eskuragarri edukitzeko edo norberaren dokumentuak Interneten edukitzeko, ikastetxeko hodei pribatua da.

Helbidea: <https://hodeia.iurretalhi.eus>

Interneten dago, eta beraz, etxetik ere atzipena daukagu.



Dokumentuak partekatu daitezke, eta norberaren ordenagailuarekin sinkronizatu.

Bideo [esteka](#)

KANPOTIK ATZIPENAK VPNAK

Ikastetxean VPN (Virtual Private Network) dugu kanpotik sartzeko. Fortigate VPN: Suhesiak duen VPNa.

Irakasleren batek behar badu, eskatzea dauka.

WI-FI SAREAK

Ikastetxean hiru Wi-Fi sare erabiltzen dira nagusiki.

lurretalhi-Irakasleak: irakasleak soilik sar daitezke eta konekta daitezke sareko irakasleen domeinuko karpetetara.

lurretalhi-Ikasleak: Ikasle sar daitezke eta konekta daitezke sareko ikasleen domeinuko karpetetara.

lurretalhi-Free: Sare hau irekia dago eta zuzenean doa Internetera.